

noaua

GAZTE EGUNA OSPATUKO DA LARUNBATEAN, "HARIRA BATUZ BIDEA ERAIKI" LEMAPEAN

Aztarrika gazte asanbladak egun osoko egitaraua prestatu du / 22 or.



ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Usurbil tentsio handiko eremu izendatzeko eskaera egin du Udalak / 05



NOAUA

EITBko 'Harri Herri' txapelketaren aurkezpena Saizarren egin da / 10



DONOSTIAKO SUHILTZAILEAK

Buruntzaldean zerbitzua eskaintzen duten suhiltzaileak kexu dira / 15



NOAUA

Euskaraldiaren atarian, "guztiok batera eragiteko garaia da" / 18



Alsacia & Selva Negra

IRTEERA 2025eko iraila

NOAOA
BIDAIAK

Noaak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eu • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



BARE
HORTZ KLINIKA

SLOW ODONTOLOGIA
TEL: 943 29 06 19 • 639 44 88

sentitu - bizi - izan



- PADI (odontopediatria)
- ORTODONTZIA
- IMPLANTEAK
- ODONTOLOGIA BIOLOGIKOA
- ODONTOLOGIA ESTETIKOA
- SEDAZIOA

  943 29 06 19 - Arrantzale kalea 63, ORIO

noaqa

jarraitu gure sare sozialak



facebook Instagram

 

www.noaqa.eu



Suhiltzaileak Aginagako Ezpaldiko gasolindegian, bertako teilatua egonkortzen.



Amiri inguruan zuhaitz bat erori eta bidea oztopatu zuen hainbat orduz.

Aurreko asteko haizeteak kalte arinak eragin zituen

Iragan asteko lau egun abisu horian eman genituen 80-100 kilometro ordutiko gorako haize-bolada arriskuagatik. Oste-

gun goizaldean, begi-bistako eragina izan zuen denboraleak. Zubietan zuhaitz bat erori zen bidera, Amiri inguruan. Argin-

dar kable bat ere harrapatu zuen. Bestalde, Donostiako suhiltzaileek Aginagako Ezpaldiko bi gasolindegietako batean,

itxita dagoen horretan, "laguntza teknikoko" esku-hartzea egin behar izan zuten, haren teilatua egonkortzeko.

Garbigune mugikorra, Kalezarren

Martxoaren 27tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Apirilaren 4an osteguna, garbigune mugikorra Usurbilgo erdigunera eramango dute.

Pentsiodunen Mugimenduko Mugimenduko sinadura bilketa

Herri Ekimen Legegile (HEL) bat ari dira sustatzen, "Pentsioak Osatzeko Euskal Sistema bat ezartzeko" eta horren baitan, "14 ordainsaritan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, lege bihur dadin". Larunbat honetan atxikimendua eman ahalko duzue, 11:30-13:30 artean, Sutegi atarian.

1952an jaiotako bazkaria Andatza tabernan izango da

Maiatzaren 3an egingo dute Andatza tabernan (eta ez Artzabalena, aurreko astean gaizki jarri genuen). Apirilaren 25era arteko epealdia finkatu dute otordurako izena emateko. Horretarako, apuntzeko alegia, telefono zenbaki honetara deitu beharko da: 620 516 715 (Javier).

Ordulariak udako martxara egokitze garaia

Udako ordutegira egokituko zaizkigu erlojuak edo kasu batzuetan eskuz mugitu beharko ditugu orratzak, larunbatetik iganderako gauean. Hau da, martxoaren 30ean goizaldeko 2:00etan 3:00ak izango dira. Datozen egunetan, beraz, gauak laburtzen eta egunak luzeagotzen joango dira.



Argitaratzailea:
Noaia Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaia.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaia.eus
Banataleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Zeruak eta lurrak (7)

Zoko ilun batean sartu ziren, eta beltzak hartu zuen dena. Kandela argiekozta-ozta argitzen zuten, hortik aurrerakoa ezkutuan mantentzea egokiagoa zelako edo.

Siluetek iradokizunetarako aukerahiagoa ematen omen, eta gainera, anonimotasuna mantentzeko estrategia fina izan liteke. Horregatik esana zuen Adolfok informazioa lortzeko leku aproposena zela putetxea.

Usaina sudurzuloetatik sartu zitzaion premuari, bizioaren eta alkoholaren lurrina. Hasierabatean, atzerakoa eragin zion, eta kalera bihurtzeko larria sentitu zuen, baina Adolfok berak besotik heldu, eta ez zion alde egiten utzi. Han gauza garrantzitsuetarako zeuden. Hala xuxurlatu zion belarrira. Normal jokatzeko esanagatik ere, premua lekuz kanpo sentitzen zen, gorakoa sentitzen zuen, hura ez zen haren habitat naturala.

Barrara hurbildu ziren, eta bi trago eskatu zituen Adolfok. Tabernariak, begiak zorrotz, gradu hartako jendeak zer egiten zuen halako lekuan galde-tuzion. "Soinak kentzeko gogoia beti gainean", erantzun zion umore kutsuz. Ohitura onak mantendu behar omen, edo antzeko zerbait ulertu zuen premuak tabernariaren hitzetan, eta iradokizunak eta susmoak borrokan hasi zitzaizkion irudimenean.

Hausnarketan zela, neska gazte bat hurbildu zitzaion.

Eskua sorbaldan pausatu zion, eta bestearekin laztanak edota ilea txirikordatzen jardun zen. Are gehiago urduritu zen premua. Bihotza taupaka ari zitzaion, izerdi hotza bizkarretik behera. "Zer ari da zu bezalako bat infernuan?", ahots ez-tiz. Erantzun ezinik geratu zen. "Katuak mingaina jan al dizu?" Berdin-berdin, harrizko estatua zirudien. Neska gazteak, bere jardunean, gizon galant bat irudikatu zuen, urduritasunak irentsia beharrez, bere gradua mantendu behar duen gizona zen haren begietan. "Inoiz ez naiz zu bezalako batekin egon. Irrikitan nago. Mundu berri baterako bidea erakutsiko al didazu?".

Adolfok bazterretik jarraitzen zuen elkarrizketa, berak ere berea eduki arren. Premuak zirt edo zart egiteko gaitasunik ez zeukan, eta berak mugitu beharko zuen kontua. "Lotsatia da", sartu zen hirugarrenen elkarrizketan. "Hala ere, pasioz betea. Gustu handiz erakutsiko lizuke edonorako bidea, baina oherakoa... Hori zuk erakutsi beharko diozu". Neskak barre gozoa egin zuen, jostaria. Eskutik sendo heldu

"USURBILGO NESKA BATEK BAINO GEHIAGOK NAHIKO ZUKEEN HURA BEZALA JANTZI"

zion, eta bultzaka eraman zuen. Premuak ez zuen erreakzionatzen. Beheko munduhura arrotz zitzaion, eta inork ez zion erakutsi nola jokatu behar zuen halakoetan.

Alde egin zutenean, bereari erreparatu zion Adolfok. Helenari buruzko informazio bila hasi zen. Etxera berak eraman-go balu, markesak semea bailitzan begiratuko luke, eta oinordekoak egiteko aukera gehiago egongo lirake. Eldarnio hutsak ziren, baina goxoa. Premua ekuaziotik kentzea zailagoa izango zen, nahiz eta edozer gauza gerta litekeen. Istripuak edota ezbeharrak edonoiz gerta zitezkeen.

Ligatzen ari zen neskak ikusi zuen Helena. Goizean, frontoian. Bera dantza egiten ari zen, eta inbidia ematen zion markesaren alaba txikiak. Apain-apain zegoen, Usurbilgo neska batek baino gehiagok nahiko zukeen hura bezala jantzi, soineko dotoreak soinean, ilea orraztuta, musuak margotuta. "Eta gero?" Gerokorik ez zegoen. Edo bai? Informazioak prezioa du. Balioa definitu nahian ari zirela, ordea, amestutako ez-beharra gertatu zen.

Premua odoleztatuta agertu zen. Ilunpetan bazen ere, aurpegia harakinak baino odoleztatuago zeraman. Garrasiak eta intziriak nagusitu ziren atmosferan. Bildutako gizonak premuaren gainera bota ziren, eta neska ohean hilik ikusi eta berehala, ez zuten pentsatu. Tiro batez hil zuten.

Zenbait ibilgailu kaltetu dituzte Santuenean

Kezkatuta eta haserre deitu digu Santueneko bizilagun batek egunotan NOAA!ra. Izan ere, azaldu digunez, urritik hona bigarren aldiz zultu dizkiote ibilgailuko gurpilak. Antza, auzokideekin hitz egiten hasi eta ez da bakarria izan.

Gutxienez, beste bizpahiru bizilagunek ere kalteak jasan dituzte azkenaldian haien ibilgailuetan. Hedabide honekin hartuemanetan jarri den bizilagunak egoera horrekiko kezka azaldu du eta antzeko egoerarik bizi izan duenari salatze-ko deia ere egin dio, gertaturikoa erregistratua gera dadin.

1980an jaiotakoak maiatzaren 10ean batuko dira

"Ez dugu urte luzez inolako ospakizunik egin 1980an jaiotakoek Usurbilen, eta elkartzeko gogoz gabiltza. Aurten 45 urte egiten ari garen honetan, bazkari baten bueltan festatxo bat antolatu nahi dugu. Ahalik eta zabalena izatea nahi genuke. Animatu!".

"1980 kintada, maiatzak 10"

- Aialde Berrin bazkaria (Sagardotegi menua).
- Zapiak.
- Triki poteoa, girotzeko.
- Apuntatzeko 60 euroko transferentzia, izen-abizenak aipatuz, kontu korronte honetan: ES9330080282135428647621
- Izena emateko azken eguna: apirilak 4.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, raziokak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-20:30 Astelehenetik - Asteazkenean
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera

Kalezar Auzoa 12, 08, USURBIL. Tel 943 73 20 27

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

Usurbil tentsio handiko eremu izendatzeko eskaera

Tentsio handiko etxebizitza-merkatuko eremu izendatzeko bi baldintzetako bat betetzen du Usurbilek.

Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatuko dio izenda dezala Usurbil tentsio handiko etxebizitza-merkatuko eremu.

Bi baldintza ezarriak ditu Etxebizitza Eskubideari buruzko 12/2023 legeak, eta bietako bat betetzea nahikoa da izendapena eskuratzeko. "Horixe da Usurbilen kasua, eta eskaera egingo dugu ofizialki martxoaren amaieran". Bide batez, udalak iragarri du etxebizitzaren diagnostikoaren zein planaren berri emateko bilerarekia egingo dela, maiatzaren 7an, Txirikordan.



Txirikordan aurkeztuko da Usurbilgo ekintza plana.

osoan, gazteen emantzipaziotik hasi eta adinekoentzako etxebizitza-baliabideetara, laguntza- eta zaintza-zerbitzuekin". Xehetasun gehiago, maiatzaren 7ko bileran.

Usurbilgo ekintza plana

Usurbilgo ekintza planean herritarren zaintza beharrak aintzat hartu direla dio Udalak. "Helburua da Usurbilgo biztanle guztien etxebizitza-beharrak erantzutea bizitza-ziklo

MAIATZAREN 7AN BILERA IREKIA TXIRIKORDAN, 18:00ETAN HASITA



Lanak burutzeko, Jaurlaritzaren 370.000 euroko dirulaguntza jasoko du Udalak.

Etxealdiako igogailua eraikitzen hastear

Lanak egin ahal izateko, apartamentu batzuk kendu dira eta oinezkoentzat ibilbide iragarri alternatiboak egokituko dira. Argazkiko eremu horre-

tan, Kale Nagusia 10ean izango du sarbidea igogailuak, "hamabi metroko desnibela gaitutuko du". Zazpi hilabeterako tartean eraikiko dute.



Apirilaren 1ean, frontoitik abiatuko dira 10:30ean.

Hurrengo paseo osasungarria, herri erdigunean

Astearteroko 'Goazen kalera, Usurbil' dinamikako ibilaldi osasuntsuetan hurrengo, apirilaren 1ean egingo da, bi astean behin egokitu ohi den moduan, Usurbil erdigunean barrena. 10:30ean abiatuko da frontoitik. Egurtzetik igaroko da.

Amaieran, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek presaturiko hamaiketakoak dastatu ahaliko da.

Ezkontza zibilen inguruko araudi bat prestatu du Udalak

Araudiaren aldaketa bat tarteko, apirilaren 1etik aurrera bake epaitegiek ezingo dute ezkontzarik gidatu. "Ondorioz, ezkontza zibilak herrian ospatzeko aukera bakarra udalategian egitea izango da, alkatetik edo zinegotzietatik gidatuta", udalategitik adituz eman dutenez. "Ezkontzak ospatzeko eskaerak gero eta gehiago direla jabetuta, araudia osatu du udalak, eta martxoaren 20an onartzea espero da".

100 euroko fidantza

Ekitaldia egiteko baimenak emango dira eskaerak aurkeztu diren dataren hurrengo araberako. "Baimenak emandakoan, bikoteek 100 euroko fidantza bat jarri beharko dute: ezkontza ospatu eta hirugarren egunetik aurrera itzuliko da, ordenantzak ezarritako betebeharrak betetzen badira".



Harkaitz Canoren 'Orkestra lurtarra' aztertuko dute.

Gaztetxoentzako literatura solasaldi berri bat

Haur eta gaztetxoentzako solasaldi berri bat Sutegi udal liburutegian. Harkaitz Canoren 'Orkestra lurtarra' izango dute mintzagai, beste behin, Yolanda Arrietaren laguntzaz. "Saioa 9-12 urteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago (LH4-LH6), eta maiatzaren 7an asteazkenarekin, 18.00etan burutuko dugu. Liburuaren hainbat ale liburutegian dastatu eskuragarri.

UEMAren udalekuan izen-ematea ixtear

Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) uda hasieran Tolosaldean eta Goierri barran egingo diren udaleku ibiltarrietan (Baliarrain, Zaldibia, Ataun eta Idiazabal lotuko dituzte) parte hartzeko izena emateko epealdia ixtear dute. Bi txanda antolatu dituzte udalerriri euskaldunetako gazteek elkar ezagutu eta saretzea xede duen ekimenaren baitan:

Lehenengo txanda:

Ekainaren 22tik 30era.

Bigarren txanda:

Uztailaren 2tik 10era, 2007-10 urte artean jaiotakoentzat. Martxoaren 31 baino lehen eman behar da izena labur.eus/salto2025 formularioa osatuta.

Informazio gehiago:

- 943 816 699
- administrazioa@uema.eus



Udala eskaintzen hasia da atzeritartasun gaietarako doako aholkularitza juridikoa, SOS Arrazakeria GKE-ren bidez.

Atzeritartasun gaietarako doako aholkularitza juridikoa

SOS Arrazakeria gobernuz kanpoko erakundeak eskainiko du doako udal zerbitzu hau hilean behin. Norberaren egoeraren arabera aholkularitza eskaini asmo dute. Usurbil harrera herri izateko norabide horretan bat egingo du zerbitzu horrek abian diren gainerako egitasmoekin.

Usurbil harrera herri bilakatzeko bidean, beste urrats bat eman du Usurbilgo Udalak. Izan ere, atzeritartasun gaietarako doako aholkularitza juridikoa eskaintzen hasi da. Hilean behin eskainiko du aurrerantzean, lehen ostiralean, 15:00-19:00 artean. Zerbitzu hau baliatu nahi dutenek aurrez hitzordua eskatu behar dute udal Aniztasun Sailaren bidez: adiaz@usurbil.eus helbidean edo 943 377 112 telefono zenbakian. Udalarekin sinatua duen hitzarmenaren baitan, zereginotan hiru hamarkada baino gehiago daraman gobernuz kanpoko erakunde SOS Arrazakeria arduratuko da, haren ordezkari Mikel Mazkianan. Zerbitzu

hau martxan jartzeko beharra ikusi du Udalak, hala jaso izan dutelako abian duten harrera zerbitzutik nahiz sorteri ezberdinetako herrikideak biltzen dituen Aniztasun Kontseilutik ere. Batean zein bestean, "behin eta berriz ateratzen zen, gaur egun, zer nolako zailtasunak dituzten eguneroan euren egoerak erregu-

**"BIZI PROIEKTUA
NOLA DAGOEN
BIDERATUA,
AHOULKULARITZA
DESBERDINA
IZATEN DA"**

larizatze, familiak batzeko, ikasketak homologatzeko, baimenak berritzeko..." Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesaren esanetan. Tramite horietan guztietan, "atzeritartasun legea bera da oztopo integrazio prozesu horretan". Testuinguruok sortutako ziurgabetasun eta zaurgarritasun egoerak tarteko,

**"INTEGRAZIO
PROZESU
HORRETAN,
ATZERRITARTASUN
LEGEA BERA DA
OZTOPO"**

batetik, eta, bestalde, egun eskaintzen diren aholkularitza zein laguntza juridikoko zerbitzuak "nahiko saturatuak badaudela" ikusita, Usurbilen bertan eskaintzen hasia erabaki du Udalak SOS Arrazakeria gobernuz kanpoko erakundearen bidez.

Zerbitzu pertsonalizatua

SOS Arrazakeria GKE-ko ordezkari Mikel Mazkianan esanetan, gure artera bizitzera datozenen egoera erregularizatzeko prozesuak eragindako zalantzak argitu edota galderak erantzuten aritzen dira sarritan aholkularitza juridiko honen bidez. Baina berak gogorarazi moduan, Usurbilek harrera zerbitzu integrala eskaini nahi duenez eta SOS Arrazakeriaren jardueraren eremua zein den aintzakotzat hartuta, hortik haratagoko zerbitzua eskaini asmo dute. "Beste arlo batzuk ere artatuko ditu", iragarri du. Esaterako, "lanarekin zerezak duen aholkularitza edota norbaitek diskriminazio ekintza bat salatu nahi badu", horretarako ere erabili ahalko du doako udal zerbitzu berri hau. Berak azaldu bezalaxe, aholkularitza zerbitzua desberdina da pertsona bakoitzaren egoera eta testuinguruaren arabera. "Atzeritartasuna dago lotuta hainbat gaiekin. Zenbat denbora daraman hemen pertsona batek, horren arabera, hasieran erregularizatu behar du bere egoera, gero dator nola ekarri familia bere sorterritik... Norberaren bizi proiektua nola dagoen bideratuta, aholkularitza desberdina izaten da".

Zerbitzu berri honek Usurbil harrera herri bilakatzeko bidearekin bat egiten du abian diren gainerako egitasmoen (HarEman egitasmoa, harrera zerbitzua, baliabideen gida...) antzera eta xede argia du; "gure herrira bizitzera datozen pertsonen Usurbilgo komunitatean integratzen laguntzea".



"Udala Hezkuntza Sailarekin eta Haurreskolen Partzuergoarekin elkarlanean aritzea eskatzen dugu, prozesua ahalik eta azkarren gauzatzeko, eta familien beharretara doitzeko".

EAJ, Haurreskola Partzuergoan integratzearen alde

Mozio bat erregistratu du, helburu argi batekin: "zerbitzua doakoa, publiko eta kalitatezkoa bihurtzea, herritarren mesedetan".

Usurbilgo Udalak eskaintzen duen haurreskola zerbitzua, Haurreskolen Partzuergoan integratzearen aldekoa da EAJ-PNV alderdia. "Helburua argia da: zerbitzua doakoa, publiko eta kalitatezkoa bihurtzea, herritarren mesedetan", prentsa-ohar bidez jakinarazi duenez. Eta eskaera eztabaidatua izan dadin, mozio bat erregistratu du udaletxean.

Alderdi jeltzaleak gogora ekarri nahi du "2022ko apirilaren 7an sinatutako Hezkuntza Akordioak Haurreskolen Partzuergoaren aldeko apustua berretsi zuela, eta zerbitzua unibertzala eta doakoa izatea

ezarri zuen. Horren ondorioz, 2022/2023 ikasturteetik aurrera, Haurreskolen Partzuergoak eskaintzen duen zerbitzua doakoa da familientzat".

Mozio honen bitartez, "EAJ-PNVk gaia udalbatzara eraman

"PROZESUA EGUNGO LANGILEEN ESKUBIDEAK BERMATUZ EGINGO DA"

USURBILGO EAJ-PNV

nahi du, Usurbilgo Udalak urratsak eman ditzan, gaur egungo zerbitzua Haurreskolen Partzuergoan integra dadin".

Urrats honek hainbat abantaila ekarriko lituzkeela dio EAJk:

- Usurbilgo haur eta familiek doako zerbitzua publiko bat izango dute, kalitatezko irizpideekin.

- Udal aurrekontuan eragina: Partzuergoan sartzeak karga hori arindu eta baliabide gehiago ahalbidetuko lituzke beste udal zerbitzuak indartu edo inbertsio berriak egiteko.

- Langileen egoeraren errespetua: prozesua egungo langileen eskubideak bermatuz egingo da, eta borondatea badago, langileek Haurreskolen Partzuergoan integratzeko aukera izango dute.

"Prozesu hau ahalik eta azkarren gauzatzeko, eta familien beharretara doitzeko", Hezkuntza Sailarekin eta Haurreskolen Partzuergoarekin elkarlanean hasteko premia nabarmendu du alderdi jeltzaleak.



Sutegin egingo da ekitaldia.

Haur Eskolako ate irekien saioa, apirilaren 1ean

Martxoaren 25erako iragarria zegoen ate irekien jardunaldia baina "azken orduko erabaki bat tarteko", bilera atzeratzea erabaki dute.

Apirilaren 1ean asteartea batuko dira, arratsaldeko 17:30etik aurrera, Sutegin.

Larunbat honetan, "Usurbil herri zainzailea" ekitaldia

Martxoak 29, larunbata

- 11:00-13:30, Sutegin.

- Ekitaldiaren edukia:

- 1-"Usurbil, herri zainzailea" dokumentalaren aurkezpena.

- 2-Arreta ereduaren eraldaketa: bizi planen aurkezpena.

- 3-Usurbilgo zainza ekosistemaren egituraren aurkezpena.

- 4-Komunitatearen ekarpena, martxan dauden proiektuen aurkezpena: Txirikorda, Hur-Bilduz auzo-zaintza proiektua, HarEman, merkataritza zainzailea, gazteak eta buru osasunaren lanketa.

- 5-Amaieran, mokadutxo bat izango da.

- Gonbidapenak: usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalko dira.

- Antolatzaileak: Herri Zainzailea Usurbil, Udala.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81



Agustín Esnaola eta Peio Manrique antolatzaileek dena prest dute Ibai-Ondo Backyard erronkarako.

"Alderdi psikologikoak garrantzia handia izango du lasterketan"

PEIO MANRIQUE ETA AGUSTIN ESNAOLA IBAI-ONDO BACKYARDEKO ANTOLATZAILEAK

Apirilaren 12an jokatu da Ibai-ondo Backyard txapelketa. Orduak eta orduak emango dituzte korrikalariak Santuenea eta Txokoalde bitartean (Atallutik ere pasatuko dira).

Ibai-ondo Backyard proba izango da bi aste barru, baina zer da backyard bat?

Backyard amerikar batek asmatutako proba bat da. Backyard hitzaren itzulpena "atze-ko patioa" da. Gizon horrek bere etxe atze-ko patioan korrika lasterketa bat antolatu zuen 6,7 kilometrokoa. Distantzia hori jartzen da 24 orduan ehun mila egiteko 6,7 kilometro egin behar direlako. Zatiketa sinple bat da. 160 kilometro inguru dira ehun mila. Orduro irteera bat ematen da, eta ordubeteko tartean 6,7 kilometro egin behar dira buelta osoa emanda. Erritmoa bakoitzaren arabera da. Korrikalari azkar eta makalek denbora bera dute proba bu-

katzeko: ordubete. Ordubete pasatzen denean, berriro ere irteera ematen da, eta horrela pertsona bakarra geratu arte. Ordubete bakoitzaren kudeaketa pertsona bakoitzaren esku dago eta horren barenan jan eta edateko denbora kontuan hartu behar da, lo egiteko denbora eta bestelakoetarako. Ordubetea pasa-

"ORDUBETERAKO ITZULI EZ DENA EDO HASIERAKO PUNTUAN EZ DAGOENA KANPORATUA DA"

ta berriro ere hasierako puntuan egon behar da hurrengo bueltari ekiteko. Ordubeterako itzuli ez dena edo hasierako puntuan ez dagoena kanporatua izaten da. Azkena geratzen denak, txapeldun izateko, azken buelta eman behar du ordubetean berak bakarrik. Ez badu azken buelta hori ematerik lortzen, ez da

"GORPUTZA ETA MINAREN KUDEAKETA DENBORA HORRETAN EGIN BEHAR DA"

irabazlerik izaten. Azken biek batera uztea erabakitzen badute, lagunak egin direlako edo ezin dutelako gehiago, ez dago irabazlerik. Korrikalari guztiei ematen zaie domina bat edo lasterketa amaitu ez duen seinale bat. Irabazten duena izaten da lasterketa amaitu duen bakarra. Garrantzitsua da aipatzea gizona eta emakumezkoek batera hartzen dutela parte. Ez dago bereizketarik. Berdin izan daiteke irabazlea emakumezkoa zein gizona.

Zenbat denboran espero duzue amaitzea proba?

Hori ez dago jakiterik. Lasterketan izena eman dutenen artean, iruditzen zaigu 10 edo 12 ordu egiteko prest bada goela jendea. 6 edo 7 ordu egiten saiatuko direnak ere baditugu tartean. Maratoi bat egitea bezalako distantzia litzateke hori azken finean. Geldialdiak egitea izaten da arazorik handienetakoa proba hauetan. Muskuluentzat oso txarra da 10 minutu geldirik egon eta berriro ere korrika egitea. Gogorrago egiten du horrek. Lasterketa guztiek daukate alderdi psikologikoa, baina proba honek batik bat. Ordu batean egingo dituzu 6,7 kilometro, baina hurrengo orduan berriro hasiko zara. Gorputza eta minaren kudeaketa denbora horretan egin behar da, eta ahalik eta luzeen iraun.

Backyard proba guztiak asfaltoan egiten dira?

Gurea baino bide aldapatsua goetan egin ohi dira, mendiko bideetan maiz. Gurea asfaltoa da eta ez dauka ia aldaparik, bakarrik trenbidea pasatzeko egin behar den igoera eta jaitziera hori. Zati horrek egingo du min. Motza izango da, baina zati gogorra. Bidea horren laua izanda, nahi gabe ere erritmoa hartzen duzu eta pentsatu baino lehen amai dezakezu. Horrelako probetan zailduta daudenek badakite

nola zaindu eta kudeatu egoera hori manta bat hanketan jarrita ez hozteko eta halakoak. Frontoian nabaria izango da nortzuk diren berriak eta zeintzuk esperientziadunak.

Ekar dezagun gogora ibilbidea.

Santuenuko frontoitik abiatu eta Atallura joan beharko dute. Atallu erditik pasa eta Garbigunean berriro ere Santuenea alderako bidea hartu beharko dute. Ondoren, Santueneara itzuli joandako bide beretik eta zubia pasa bezain pronto, eskuinera hartu eta Txokoaldeko bidean sartu beharko dute. Txokoaldeko sagardotegi parean eman beharko dute buelta berriro ere Santueneara itzuli eta frontoian amaitzeko. Hasierako ideia Aginagako baratzeetaraino joatea zen, eta han buelta ematea. Modu horretan, ez genuen biderik itxi beharrik izango eta trafiko arazo gehienak ekidingo genituen. Hala ere, Udalak abisatu zigun Txokoaldeko zubian obrak egitekoak zirela, eta ezin izango genuela Aginagaraino pasatu. Oraindik ez dira hasi obrak egiten, baina bigarren plan bat behar genuen. Beraz, Txokoaldeko zubiaren ondorengo zati hori egin ezin genuenez, Atallura joatea erabaki genuen. Horrek trafikoan eragina izango du, eta denbora tarte labur batzuetan bidea itxi beharko dugu Santuenetik Atallurako bide horretan. Oso mozketa motzak izango dira, pare bat semaforo gorri hartzea bezala.

120 parte hartzaile izango dira. Zer dakizue eurei buruz?

Hainbat herrialde eta probintziatako jendea animatu zaigu. Gipuzkoarrak izango dira gehien: 92, bizkaitarrak 7, eta nafarrak, esaterako, 6. Arabarrak, berriz, 2 izango dira. Gainontzekoan, Frantziako Bordele ingurutik 4 pertsona etorriko dira, eta Espainiako probintzietako beste hainbat: Alacant, Asturias, Burgos, Gi-



100 ziren plazak, hasiera batean. 120ra igo zuten gero. "Oraindik 25 bat lagun ditugu itxaron-zerrendan".

rona, Granada, Huesca, Errioxa zein Leondik. Gipuzkoarren barnean, aipatu beharra dago 34 donostiarrak izango badira ere, Buruntzaldeko partehartzea zabala izango dela, 24 pertsona guztira. Horien artean, 11 usurbildar, zubietar bat, Lasarteko 7, Hernaniko 3 eta Astigarragako beste 3. Bost sari dauzkagu. Lehen gizonezkoak eta lehen emakumezkoak txapela eramango dute, nahiz eta lasterketa ez irabazi. Trofeo egongo da txapelketa irabazten dutenentzat. Bi sari txikiago ere izango ditugu Buruntzaldeko onenentzat: lehen emakumezkoarentzat eta lehen gizonezkoarentzat.

Zuen kasuan ere izen-ematea berehala amaitu zen.

Kontu bitxi bat izan dugu horrekin. Izen-ematea ireki eta astebeterako bete egin zitzaigun, eta pixkatxo bat handi-

"DENBORA TARTE LABUR BATZUETAN BIDEA ITXI ETA TRAFIKOA ETEN BEHARKO DUGU"

tzeko moduan ginela konturatu ginen. 100 ziren hasieran eta 120ra igo genuen plaza kopurua. Itxaron-zerrendan zeuden pertsonak pixkanaka-pixkanaka joangara sartzen. Hasierako izen-emateetatik 15 pertsonak baja eman behar izan dute lesioak eta bateraezintasunak tarteko. Oraindik ere 20-25 pertsona dauzkagu itxaron-zerrendan.

Emakumeen partehartzea ere zabala izango da?

21 emakumezko eta 99 gizonetzko izango dira. Gizonak nabarmen gehiago dira, baina emakumeak ere baditugu tarteko. 35 ordu korrika egindako emakume batek hartuko du parte, adibidez. Bigarren egin zuen lasterketa batean. Maila oso ona du, eta halako bat baino gehiago espero ditugu.

"KORRIKALARI BAKOITZARI POLTSA BAT EMANGO DIOGU, AFRIKAN EGINDAKO POLTSA"

Ordu luzeetarako lana izango duzue, beraz.

Ostiralean karpa muntatu eta prestaketa lanekin hasiko gara, eta igandera arte iraungo du ziur. Dena finkatuta daukagu, eta egunari itxarotea besterik ez zaigu geratzen. Auzokoak mugitu ditugu eta saltsa jarri. Auzoko pare bat korrikalari ere izango dira. Noiz arte iraungo duen probak? Astelehenean horretan jarraituko duen inor egongo ote den? Posible da.

Lasterketak alderdi solidarioa ere izango du.

Jakinda ez dela partehartzailerik kopuru handiko lasterketa, partehartzaile bakoitzari eskatu diogu Caritasentzat hiru kilo janari. Herritar guztientzat irekita dagoen ekimena izango da. Lasterketa egunean ontzi batzuk jarriko ditugu eta nahi duenak utz dezake janaria, eta guk aterpera eramango dugu. Horrez gain, korrikalari bakoitzari poltsa bat emango diogu, Afrikan egindako poltsa bat. Togon egindakoak dira, oso koloretsuak, Foyer Adsis elkartearen eskutik lortu ditugunak. Poltsa guztiak ez dira berdinak, merkatuan aurkitutako telekin egindakoak dira.



EITBko ordezkariak eta herri kirol txapelketan parte hartuko duten kirolari batzuk, Saizar sagardotegiaren atarian.

'Harri Herri' txapelketak ukitu usurbildarra izango du

"Harri Herri" herri kirol programaren hirugarren edizioa estreinatuko du EITBk martxoaren 31n. Oraingoan ere, ETB1en eta eibb.eus-en eskainiko da harri-jasotzea oinarri duen txapelketa, astelehen gauetan, 22:20an hasita. Iaz bezala, aurkezpen ekitaldia Saizarrean egin zuten.

EITBk Usurbilgo Saizar sagardotegian aurkeztu zuen 'Harri Herri' telebista programaren hirugarren denboraldia. Ekitaldian izan ziren Joseba Urkiola EITB Mediako Kirol zuzendaria eta hainbat lehiakide eta kapitain.

Horiez gain, Luis Mari Bengoa Egur Sport enpresako arduradunak eta Napo Lertxundi Saizar sagardotegiko ordezkariak ere hitza hartu zuten eta eskerrak eman zizkieten Euskal Telebistari, herri kirolen aldeko apustuari eusteagatik.

Aurtengo berritasunak

Aurtun 32 harri-jasotzailek hartuko dute parte: gizonezkoak 16 eta emakumezkoak beste 16. Launa taldetan lehiatuko dira.

Berritasuna kapitainen aldetik dator. Emakume taldeen kapitainak ere emakumezkoak

izango baitira lehendabizikoz: Elene Ostolaza, Karmele Gisasola, Naroa Arruti eta Lur Errekondo.

Gizonezkoak ordea, iazko berberak izango dira: Joseba Ostolaza, Zelai II, Izeta II eta Luis Mari Telleria.

Zortzi talde izango dira guztira, eta talde bakoitzak harri baldar baten izena izango du: Albizuri, Igeldo, Etxauri, Laukariz, Mollarri, Ibiur, Ergobia eta Ulia.

Iñaki Perurena, aditu lanetan

Txapelketak Zarauzko Aritz-batalde frontoia du kokaleku eta grabatu dira jada lau finalerdiak eta finala.

Juanan Legorburu eta Ane Muruamendiaraz kazetariekin batera, Iñaki Perurena harri-jasotzaile ohia eta Idoia Etxeberria harri-jasotzaile arituko dira aurkezle eta aditu lanetan.

Harriak eta dinamika

Harri-jasotzaile bakoitzak harri bakarrarekin lan egingo du eta denbora jakin bat izango du horretarako.

Gizonezkoen harriak honako hauek dira: 188 kiloko errekangularra, 125 kiloko kubikoa, 125 kiloko zilindro zaharra eta 100 kiloko bola.

Emakumezkoen harriak, berriz, hauek: 100 kiloko errekangularra, 62,5 kiloko kubikoa, 62,5 kiloko zilindro zaharra, eta 50 kiloko bola. Txandaka lehiatuko dira harri bakoitzaz-

**"AURTEN
32 HARRI-
-JASOTZAILE
ARITUKO DIRA:
16 GIZONEZKO ETA
16 EMAKUMEZKO"**

rekin eta denbora tarte jakin bat izango dute lau harriekin lanean aritzeko.

Denbora-altxorren garrantzia
Jasoaldi bakoitza denborarekin sarituko da; hartara, talde bakoitzak denbora-altxorra lortuko du. Zertarako denbora-altxor hori? Saio bakoitzean final moduko bat jokatu dute harri berezi batekin: txapelketa honetarako espresuki aurkitutako harri baldar zail bat. Harri hori aurretik ikusi gabea izango dute, eta talde bakoitzak aurretik irabazi duen denbora-altxorra izango du harri baldarra jasotzen saiatzeko.

Harria eta sagardoa, loturik

Iaz bezalaxe, EITBk Saizar sagardotegia aukeratu zuen 'Harri Herri' telebista saioaren aurkezpen ofiziala egiteko. Ekitaldia hasi eta gutxira, Napo Lertxundik hartu zuen hitza. "Harria, kultura, oso lotuta daude sagardoarekin. Urtean zehar, mundu horretako jende asko pasatzen da hemen-dik". EITBko saioaren babesleeta bat da Saizar. "Gure laguntza oso gustura eskaintzen dugu. Ea hurrengo urtean ere hemen ikusten garen", azaldu zuen Napo Lertxundik.

Lur Errekondo, kapitain

Harri-jasotzaile lanetan aritu izan da. 'Harri Herri'-ren hirugarren edizioan ordea, kapitainetako bat izango da usurbildar gaztea.



Arrillaga-Etxegarai bikoteak 22-16 galdu zuen Arraiza-Gaminde bikotearen aurka.

Binakako Txapelketa Nagusiaren finalaren atarian geratu da Arrillaga

Aurreko astebukaeran, binakako txapelketako finalaurrekoak jokatu ziren Laudion. Bigarren finalaurrekoan, pronostikoak oso alde izan arren, nahi baino gehiago sufritu behar izan zuten Arraizak eta Gamindek 22-16 irabazteko.

Etxegarai-Arrillaga bikoteak oso ondo ekin zion partidari, tarteka markagailuan abantailak ere izan zituztelarik.

Partidak aurrera egin ahala, aurreikusitakoa bete zen. Finala Oiartzunen jokatu da, apirilaren 6an.



Infantil eta jubenil mailan zubietarrak nagusitu ziren. Nagusietan, oiartzuarrak.

Zubietako ordezkariak fin aritu ziren Joko Garbiko finaleran

Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketako finalak jokatu ziren larunbatean Oiartzunen.

Infantilak:

- Zubietak3 (Linde-Arrizabalaga) 40
- Zubietak1 (Agirreurreta-Ormazabal) 36

Jubenilak:

- Zubietak (Agirre-Zabaleta) 40
- Zubietak (Agirreurreta-Garayurrebaso) 38

Nagusiak:

- Zubietak1 (Aizpurua-Aizpurua) 34
- Txost1 (Nazabal-Zabala) 40



Apirilaren 14tik 17ra egingo da baina apirilaren 6rako osatu behar da izen-ematea.

Usurbil FT-k eta Usurbil KE-k Usurbilgo Kirol Astea antolatu dute

Ate joka ditugun udaberriko oporretarako Kirol Astea antolatu dute LH 3 eta 6 mailen arteko gaztetxoentzat Pagazpe Kirol Elkarteak eta Usurbil FT-k. Apirilaren 14tik 17ra, 10:00-

13:00 artean izango da. Izena emateko epealdia apirilaren 6ra artekoa izango da. Helbide honetako formularioa osatu beharko da: <https://labur.eus/9oygca4>



Joko ona erakutsi zuten Lekeition jokatu zen txapelketan.

Bolei taldea, Euskadiko txapelketako finalerdietan

Euskadiko txapelaldun izatetik oso hurbil izan da Usurbilgo boleibol taldea. Aurreko igandean Lekeition, Euskadiko txapelketako finalerdia jokatu zuten Galdakao BT taldearen

aurka. "Partida oso parekatua jokatu arren, usurbildarrak finalaren atarian geratu ziren", berri eman dute boleibol taldetik. Finalera heltzeaz izan dira, honenbestez.

1972ko Usurbilgo Trikitilari Eguna gogoratu dute

"Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 50 urte eta gehiago" liburua aurkeztu eta 1972ko Usurbilgo Trikitilari Eguna oroitu zuten.

Euskal Herriko Trikitilari Elkartearen 50. urteurrenaren harira, hitzaldia eskaini zuten larunbatean 1972an Usurbilen ospatu zuten Trikitilari Eguna oroitzeko. Tartean, Manex Torrealdai herritarra, elkartearen lehendakariorde gisa.

2022an ospatu zituen Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak 50 urte, Usurbilgo Trikitilari Eguna hartatik 50 urte pasa zirenean. Data esanguratsu hori aitzakia bikaina izan zen orain arte egindako bidearen inguruan hausnartzeko eta instrumentuaren historian sakontzeko.



Ekitaldiz betetako goiza amaitzeko bazkaria egin zuten Artzabalen.



Herriko trikitilari eta garaiko eragileak omendu zituzten.



Trikitipoteoan aterpea aurkitu zuten Mikel Laboa plaza inguruan.



Trintxerpeko musika-banda Kale Nagusian barrena frontoirako bidea hartuta.



Trintxerpeko musika-bandak kontzertua eskaini zuen frontoian eguerdian.

Trintxerpeko musika banda kalejiran eta kontzertuan 21. Soinurbilen barnean

Trintxerpeko Ilunbe musika-bandaren bisita jaso genuen igande goizean 21. Soinurbilen

babespean. Goizeko 12etan kalejira osatu zuten herriko kaleetan barna. Ez zuten euri-

rik egin, eta horrek aukera eman zien ia ordubeteko itzulia egiteko frontoi inguruan hasi, Artzabalera joan eta Kale Nagusian aurrera jarraituta udaletxe ondotik frontoira itzultzeko. Ondoren, kontzertua eskaini zuten frontoian.

Jende ugari hurbildu zen frontoi ingurura igande goiza izanik, eta musikaz gozatzeko aukera izan zuten. Honakoak izan ziren jo zituzten abestiak, besteak beste: *Aleluya*, *biribilketa*, *Contrapas*, *Lepoan hartu...*



Iratxe Etxebeste bere liburuaz aritu zen hizketan Emakumeon Etxean.

Emakumeon Etxearen hastapenak, iruditan

Lehen urtea bete du Kalezarko Pelaioenearen irekierak eta harekin, auzo elkartearen egoitzak eta Usurbilgo Emakumeon Etxeak. Azken egitasmo honen sustatzaileek argazki erakusketak xume bat jarri dute goiko solairuan, tarte honetan bide-

raturiko dinamiken erakusleihogisa. Apirilaren 16ra arte izango dira aipatu goiko solairuan.

Behekoan, inaugurazioaren eguneko argazkiak ere jarri dituzte. Horien kasuan, modu iraunkorrean uztea da Emakumeon Etxekoaren helburua.



Txirikordan Arrobitxulo osatuko duten eragileak bilera egiten.

Arrobitxuloren proiektua zehazten jarraitzeko bilera egin zuten larunbatean

Elkargunearen proiektua zehazten jarraitzeko bilera egin zuten larunbatean Txirikordan Elkargunea osatzen duten hainbat eragileetako kideek.

Bileran, datozen hilabeteetan jarraitu beharreko urratsak

definitu eta datozen saioen plangintza aurkeztu zuten. Lehenik, forma juridikoa landu beharko dute, eta aukerak aztertzeko saioak egingo dituzte profesionalekin. Hori definitzea izango da uda bitarteko asmoa.



Zuhaitz Gurrutxaga eta Ander Izagirre "Subcampeón" liburuari buruz solasean.

Irabazleorde ez direla erakutsi zuten Ander Izagirre eta Zuhaitz Gurrutxagak

"Subcampeón" liburuari buruzko solasaldian izan ziren Ander Izagirre idazlea eta Zuhaitz Gurrutxaga futbolari ohia eta telebista aurkezlea ostiralean Sutegin. Elkarlanean idatzitako liburuaren nondik norakoak izan zituzten hizpi-

de, eta luze eta zabal aritu ziren liburuaz eta euren arteko harremanaz.

Sutegi Udal Liburutegiak antolatutako ekitaldia izan bazen ere ostiralekoa, ez zuten liburutegian bertan egin, beheko auditorioan baino.



Alaia Martin herritarrekin solasean laburmetraiaz Alaitz Aizpurua ondoan duela.

22. Laburbira proiektatu zuten igandean eta Alaia Martinen bisita jaso zuten

22. Laburbira proiektatu zuten Sutegin igande arratsaldean, eta urtero legez zuzendarietako baten bisita jaso genuen. Aski ezaguna den Alaia Martin bertolaria izan zen hura, "Pentsatzen dut" laburmetraian zuzendari lanetan aritu zen Karmele

Mitxelena eta Iraitz Mateorekin batera.

Ikus-entzunezkoak ikasia da Alaia, nahiz eta bertsotan gehiago ikusia izan. Solasean aritu zen auditoriora hurbildutako herritarrekin laburmetraia sortzeko prozesuaz.

 Zurrunbiloa

Zergatik egin du okerrera gazteen osasun mentalak?

Erantzunak

zurrunbiloa.eus



 elhuyar
ezagutuz aldatzea

 DANOBATGROUP

Adin txikiko pertsona askok harrera-familia bat behar dute. Eta familia askok erantzuna eman diezaiokete egoera horri. Baina ez dute deitzen uste dutelako ez datozela bat perfilarekin. Horregatik, deitu aurretik zalantzak argitzen dituen lehen telefono zenbakia sortu dugu. Zure familia 6, 8, 2, 5, 4 edo 3 kidekoa izatea berdin duelako. Garrantzitsua delako, bakarrik haziko den adin txikikorik ez egotea. Deitu ezazu.

 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia



682554433



Prekarietateaz kexu dira Donostiako suhiltzaileak

Donostian eta Beterri-Buruntzaldea eskualdean lanean diharduten suhiltzaileek bizi duten egoera prekarioa salatu dute. Lan-baldintzak duintzeko mobilizazioei ekin diete.

Beste behin ere "nahikoa dela!" adierazi nahi izan dute ohar bidez, Donostiako Udalek Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua (SPEIS) osatzen duten langileen kolektiboak. Gipuzkoako hiriburuko udalak jardunean izateko hamalau suhiltzaileen gutxienekoa ez duela betetzen salatu dute. "Egun batzuetan hamaika suhiltzaile baino ez daude 265.000 biztanleko hiribururu guinea betetzeko", jakinarazi dute ohar bidez, nahiz bestelakorik dagoen idatzia. "Paperean gutxienez, hamalau suhiltzaile egongo direla idatzi duten arren (hori da irteera handi bakar baterako prozedura operatiboak betetzeko behar den gutxienekoa), ez dituzte behar hori betetzeko tresnak ezarri", azaldu dute. Horrek eragina du, bistan denez, hiriburuan bertan baina baita inguruko udalerriotan ere, tartean, Usurbilen. Aipatu langileen kolektibotik azaldu dutenez, "oraindik ez dugu plantilla handitu Donostialdean (Pasaia, Hernani, Usurbil, Urnieta, Lasarte eta Astigarraga) hiriburuentzako dakarren arrisku eta segurtasun faltarekin, askotan baliabide guztiak udalerririk horietan zerbitzuak ematen ari baitira".

Mobilizatuak

Testuinguru honetan, "borondate politikoa" izatea galdengin dute, "beste gai batzuentzako dagoen bezala, zerbitzu hau modernizatzeko, segurtasun-baldintzetan lan egiteko plantilla nahikoa izatea eta herritarrek ordaintzen dituen zergen arabera erantzuna jaso ahal izatea".



Egunero, goizez zein arratsalde, "brigada bakoitzeko suhiltzaileek elkarretaratzea egingo dute parkean".

Egoera honen aurrean, mobilizazioak abiarazi dituzte. Egunero, goizez zein arratsalde, "brigada bakoitzeko suhiltzaileek elkarretaratzea egingo dute parkean". Horrez gain, Donostia inguratzen duten udalerrietako, hau da, Usurbilgo, Lasarteko, Hernaniko, Urnietako, Astigarragako eta Pasaiaiko alkateei "premiazko bilera bat eskatuko diegu" iragarri dutenez, "beren herrietan estaldura ematen duen larrialdi-zerbitzuaren egoera larriaren berri emateko".

Horrez gain, Lan Ikuskaritzara joko dutela iragarri dute, "zein arrisku egoeratan gauden" salatzeko, "gure lana segurtasunez egiteko behar diren gutxienekoak ez betetzeagatik". Azkenik, herritarrak ere sensibilizatu asmo dituzte. "Gure zerbitzuan baliabiderik ez izateak dakartzen arriskuen berri emango diegu", iragarri dute.

Urtebetetik gorako negoziazio prozesua

Gogorarazi dutenez, duela urte eta erdi ekin zieten mobiliza-

zioei, 2023ko abuztuan hain zuzen, urteotan bizi izandako "egoera prekarioa publikoki salatzeko". Ordutik hona izandako bilakaera azaldu dute. "Gutxieneko behar batzuk ezarri ziren egoera leheneratu ahal izateko, guztiak zerbitzuaren lan-baldintzekin lotuta".

Zehaztu dutenez, hainbat jarraibide egonkortzea lortu da, "hala nola, lanerako mahai iraunkor bat, inbertsioetarako eta prestakuntzarako urteko aurrekontu finkoa, egutegiaren lehen eranskina egutegiaren lan-baldintzak arautzeko".

Baina ez da aski, kolektibo honen esanetan. Egunotan gogora ekarri duten moduan, "ez da ezarri brigada bako-

tzeko eguneko gutxieneko hamalau suhiltzaile batzeko konpromisoa".

Oroitarazi dutenez, "otsailaren 26an, sindikatuen azken negoziazio-mahaia izan genuen Udalarekin, gai-zerrenda bakar batekin: SPEISen prestasuna, txandakotasuna eta hainbat lan-baldintza negoziatzea", hamalau suhiltzaileko gutxieneko horretara heltzeko. Saio horretan, "pertsonek kudeatzeko zuzendaria, zinegotziarekin batera" aurkezturiko proposamena zentzugabetzat jo dute langileok "eta pazientzia handia duen kolektiboarekiko errespetu falta gisa baino ez dugu ulertzen, inolako errefortzurik gabeko plantilla falta ordezkatzeko ari baitira".

Urtebetetik gorako negoziazio prozesuan aurrerapausorik ez dela eman adierazi dute. "Legeak agintzen duena inbertsioetarako erabiltzea onartu dute, baina oraindik ez dugu plantilla handitu behar; beraz, gabezia hori langileen ahaleginarekin betetzen ari da".

Funtsezko eskaerak

Testuinguru horretan, oraindik egiteko asko dagoela jakinarazi dute: "brigadetan eta operadoreetan plantilla handitzea, Donostialdearen behar operatiboari aurre egiteko; "Plangintza eta Babes Zibileko plantilla handitzea; "tailer mekanikoa eta mantenimendu arloko plantilla handitzea; Euskadiko SPEIS lege berriaren egokitzapena; sarjentu, kabo eta suhiltzaileen-tzako LEPak martxan jaretzea; "hurrengo lau urteetarako lehentasunak eta hobekuntzak markatuko dituen estrategia-eta komunikazio-plana lantzea; edota parkea handitzea.

Funtsezkotzat jotzen dute "Donostiako Udal Gobernuak behingoz onartzea langileen lan-baldintzak larrialdietako zerbitzu publiko gisa behar duena izatea, Donostiako eta Donostialdeko herritarrek eskatzen dioten kalitatea lortzeko".

LAN IKUSKARITZARA JOKO DUTE "ZEIN ARRISKU EGOERAN DAUDEN SALATZEKO"



Donostia, Bilbo eta Gasteiz hiriak bisitatu eta gero iritsiko da Aztia ikuskizuna Usurbilera. Apirilaren 6an, 19:00etan Sutegin.

"Aztia ikuskizuna dinamikoa eta dibertigarria da"

OIER GUILLAN IDAZLEA ETA AKTOREA

Don Inorrez musika taldeak eta Metrokoadroka sormen laborategiak elkarlanean egindako proiektua da 'Aztia'. Oier Guillanen testu batetik abiatuta, Don Inorrezek disko bat plazaratu zuen urte hasieran. Zuzenekoetan musika, antzerkia eta butoh dantza uztartzen dituzte. Pieza eszenikoak harrera beroa izan du Donostian, Bilboko Loraldian eta Gasteizko Zurrumbilo jaialdian.

Nola definituko zenuke Aztia ikuskizuna?

Aztia, lehenik eta behin, musikatik abiatzen da, Don Inorrez musika taldearen bulkada batetik. Eta hari horri tiraka sortu genuen antzerki bakarrizketa. Proiektuak aurrera egin ahala eta diskoak forma hartu ahala, ikusi genuen oholtzarako bidea egin zezakeela. Antzerki bakarrizketa izanik diskoko hitzen oinarria, pentsatu genuen ederra litzatekeela musika eta antzerkia uztartzea ohol-tza gainean. Eta bide horretan, elementu ezberdinak bakarrizketaren parte egitea: kantak, antzezlanak, butoh dan-

tza... Kurioa bada ere, ohol-tzan dauden bost gorputzek gorputz bakar bat antzeztzen dute: aztiarena. Emanaldian oso ondo uztartzen dira elementu guztiak eta oreka ederra sortzen dute. Saioa dinamikoa eta dibertigarria da.

"ANTZERKIA, MUSIKA, BUTOH DANTZA... OSO ONDO UZTARTZEN DIRA ELEMENTU GUZTIAK SAIOAN"

Aztiaz ari gara, baina nor da aztia?

Pertsonaia bat da, ahots bat, sentimendu bat. Patrika Zabalegi du izena, eta coach baten modukoa da. Asko du bufoitik. Gauza deserosoak esaten ditu, beti ere umorez

"AZTIA PERTSONAIK ASKO DU BUFOITIK. UMORETIK ERE BADU GURE IKUSKIZUNAK"

eta ironia handiz. Aztia hori da, espresatu nahi dugun hori espresatzeko sortu dugun pertsonaia bat.

Deslilura eta etsipena nagusi diren garaian, des-deslilura eta des-etsipena aldarrikatzera zaitzela irakurri dugu.

Desliluraren gaia bada zerbait hori nik barruan nuena, eta azkenaldian sentitu dut, han eta hemen, jendartearen arlo ezberdinetan, presente dagoen sentimendu bat dela deslilurarena. Eta mundura begiratzeara besterik ez dago, ze zailak jartzen ari diren hainbat gauza. Bakoitzak izango du bere deslilurarako motiborekin bat. Nik kultur arloan dauden politikekin sentitu izan dut antzekorik. Banuen kezka hori. Sentimendu hori nagusitzen ari den heinean, nola eman ahal zaion buelta horri. Hortik etorri zen des-desliluraren gaia. Azkena batean, des-deslilurak deslilura bera hartzen du bere baitan. Dena den, desliluraren ondoren ez nuen ikusten lilura berri bat sortuko zenik, baizik eta esperientzia hori bere baitan hartu eta gero, aurrera egin nahi duen bulkada bat bezala. Aurrera egiteko kementa; ikasitakotik, bizitakotik abiatzen dena. Nik ez dut erantzun argirik. Ez dakit nola des-desliluratu gaitezkeen, baina aztiak espresatzen duena batez ere hori da, des-deslilurarako gogoia.

Apirilaren 6an Sutegin izango zarete. Metrokoadroko kideok ondo ezagutzen duzuen plaza da, ezta?

Sutegik esperientzia askoren oihartzuna ekartzen dit gogora. Oso atzera egin nezake. Alex Tellok eta Topa Eszenika antolatzen zutenean adibidez, kale-antzerkia egiten aritu ginen, eta nire lehenbiziko antzerki tailerra ere bertan eskaini nuen. Gerora, hainbat gau eder pasa izan ditut hor. Artzeren poesian oinarritzen zen 'Nola belztu

behar zuria' ikuskizun poetikoa Sutegin eskaini genuen lehen aldiz, eta DVDA ere, bertan grabatu genuen. Ederra da Artze gogora ekartzea berriz ere. Bere etxean hainbat alditan izan nintzen.

Eta duela gutxi, 'Zeozertan dabil baina ez dakit zertan' antzezlanarekin izan ginen Usurbilen eta Joan Mari Torrealdai bekari esker, 'Artxibo biluzia' sortzeko aukera izan genuen bertan.

Plaza erraza al da?

Sutegik badu gauza eder bat: gertutasuna. Antzoki bat da, baina oso gertu sentitzen duzu jendea, bertatik bertara, eta berotasun hori oso esker onekoa da.

Joan Mari Torrealdai bekaren lehen deialdian, zuen egitasmoa izan zen hautatua. 'Artxibo biluzia' pieza eszenikoa izan zen horren emaitza. Oraindik orain, plazaz plaza ari zarete eskaintzen, ezta?

Udaberrian baditugu hainbat saio, bai.

Beka irabazi izanak, zer suposatzen duen zuentzat, Metrokoadroka Sormen Laborategiko ki-deontzat?



Ainhoa Alberdi butoh dantzaria, 'Aztia' ikuskizuneko pasarte batean.

Bi hitz aipatuko nituzke. Erronka eta aukera. Antzerkian edo bestelako diziplina artistikotan, ez da oso ohikoa prozesuari garrantzia ematea; iker-

ketari kalitatezko denbora eskaini ahal izatea. Zentzu horretan, guretzat aukera ikaragarria izan zen. Ikertzeko, esperimintatzeko, ondorioak

ateratzeko... 'Artxibo biluzia' pieza izan zen emaitzetako bat, eta hori bera publikoan erakutsi ahal izatea erronka handia izan zen. Gerora, hainbatetan eskaini dugu baina sumatzen dugu ez dela ohiko pieza bat, ohiko zirukuituetan funtzionatu dezakeena... Tes-tuinguru jakin batzuetan funtzionatzen du, jardunaldietan adibidez. Eta horrekin asko ikasi dugu.

Horrez gain, egindako lana liburu-objektu gisa plazaratzeko aukera izan genuen. Oso modu kolektiboan sortu genuen. Eta hor jaso ahal izan genituen gure ikerketaren inguruko gogoetak, saiakera moduan zein modu artistikoan. Eta hori luxu bat da. 'Artxibo biluzia' pieza joango da, desagertu egingo da, antzerki obrekin gertatu ohi den legez, baina liburua hor geratuko da.

"SUTEGIK BADU GAUZA EDER BAT. GERTUTASUNA. ETA BEROTASUN HORI OSO ESKER ONEKOA DA"

"Butoh dantzak ezkutuan dagoena azaleratzeko aukera ematen du"

AINHOA ALBERDI AKTOREA, DANTZARIA

Aktorea izateaz gain, Butoh dantzaria ere bazara. Eta bietatik du zure pertsonaiak.

Nik esango nuke aztia bost gorputzez osatzen dela, oholtzan gaudenon bost lagunena. Bostak gara aztia, nolabait esateko.

Oier aztiaren hitza da, zu aztiaren mugimendua, Don Ino-

rrez taldea aztiaren doinua. Bakoitza bere lengoian ari bada ere, denak dira osagarri.

Hizkuntza ezberdinak izanik ere, bateratasun bat dute denek. Eta gainera, gutako bakoitzak ere aurpegi ezberdinak ditu bere baitan.

Butoh dantzak non du jatorria?

50eko hamarkadatik datorenen dantza mota da. Hiroshima eta Nagasakiko bonba atomikoen ondoren sortu zen Japonian. Halako bonbardaketa batek ekarritako mina azaleratzeko modu bat eskaintzen zuen. Horregatik, subkontzientziaren dantza ere badela esaten da.

Tatsumi Hijikata eta Kazuo Ohno izan ziren lehenak dantza mota honi izena jarri ziotenak. Baina teoria ezberdinak daude. Tatsumik eta Kazuok ez ote zuten Mary Wigman dantzari alemanaren iturritik edan. Alemaniar espresionismoa-

rekin ere baduelako lotura bat.

Dantza estilo honek ze ezaugarri ditu?

Butoh dantzaren ezaugarri bat da ezkutuan dagoen hori azaleratzeko aukera eskaintzen duela. Iluntasunaren dantza ere deitzen zaio. Kasu honetan, iluntasunak ezkutuan edo subkontzientean dagoenari egiten dio erreferentzia. Nikesan ohi dut zure gorputzaren baitan dagoen giza-domestikazioa puskatzeko modu bat dela. Hor harrapatuta geratzen diren bizitza zatiei irteten uztea, mugimenduaren bidez.



Kati, Ibon eta Estitxu ere Euskaraldiko Usurbilgo hamaikako taldeko kideak izango dira.

"Guztiok batera" eragiteko deia

Usurbilgo hamaikakoa aurkezten hasia da Euskaraldia gure artean sustatzen ari den herri batzordea. Enbaxadore talde honen beste hiru ordezkari aurkeztu ditu bilguneak; lerrootako Kati, Ibon eta Estitxu.

Usurbilekere bere hamaikakoa izango du datorren Euskaraldian. Dagoeneko kideak banan-bana aurkezten hasi da maiatzeko ekimena udalerrin honetan sustatzen ari den herri batzordea. Iragan astean, Antton, Alizia eta Modu eza-gutu genituen. Oraingo honetan, beste hirukote bat dakarkizuegu lerrootan; batetik, Ibon, zuetako askok Txirrista tabernatik ezaguna izango zaizuen. Euskaraldiko hamaikako honen kideetako bat duzue. "Euskal Herriak euskaraz bizitzea" zinez garrantzitsutzat jotzen duenez, bide horretan denok elkarrekin eragitera deitu du. Euskaraldian parte hartzeko gonbita egin du, "denok batera posible" izango dela gogoraraztearekin batera. "Gora euskara eta gora Usurbil!", aldarri-

katu du ekimen hau Usurbilen bideratzen ari den herri batzordeakeginiko elkarrizketan.

Ildo beretik mintzatu da baita hamaikako beste kide bat. Izan ere, kirol munduak ere ordezkari izango du talde horretan, Estitxu Berasategi eskubaloi jokariaren bidez. 25 urteko herrikideak garrantzitsua dela dio Euskaraldian parte hartzea, "gure altxor hau sustatzeko". Berezi euskaraz egoki mintzatu

"HITZ EGITEN EZ DAKIENA EUSKARAZ HITZ EGITEN IKUSTEN SAIATZEA POLITA DA"

ezin dutenen ahalegina nabarmendu nahi izan du. "Hitz egiten ez dakiena euskaraz hitz egiten ikusten saiatzea polita da". Halere, orohar denok dugun erantzunkizunari ere erreparatu nahi izan dio. "Denon esku dago, euskara mantentzeko eta indar gehiago hartzeko ardura".

Aste honetako Euskaraldiko Usurbilgo hamaikako hirugarren eta azken kidea Kati dugu, azkenaldian Usurbila bizitze-

"BI SEME-ALABA DITUT. EUSKARA GEHIAGO ERABILTZEKO PARTE HARTU NAHI DUT"

ra etorritakoen artean dago bera. Sortzez Kataluniakoa da, Bartzelonakoa hain zuzen. Duela hamazazpi urte etorri zen Euskal Herrira eta bi urte eta erdi darama Usurbilen bizitzen. "Bi seme-alaba ditut eta Euskaraldian parte hartu nahi dut, euskara gehiago erabiltzeko. Elkar mugituz egin dugu. Eman izena!", egin du gonbita.

Norbanakoen izen-ematea

Hiru herrikideok ere maiatzaren 15etik 25era egingo den laugarren Euskaraldiko hamaikakoa osatuko dute aipatu moduan. Hitzak dioen moduan, hamaika lagunez osaturiko taldea da honakoa. "Euskararen erabilera bultzatzeko urratsa emango dute Euskaraldian zehar". Horrez gain, "ekimenaren enbaxadore" izango dira eta "herritarren parte hartzea aktibatuko dute, Euskaraldiaren berri haien inguruan emanez", herri batzordearen elkarrizketa hauen bidez egiten ari diren moduan. Euskal Herri mailako hamaikakoa iragan azaroan aurkeztu zuten. Herriz herri osatzen joango dira halako taldeak, Usurbilen bezalaxe, baita entitatez entitate ere. "Euskaraldian parte hartuko duten ahobizi eta belarriprest guztiei ere gonbitea egiten diegu nork bere hamaikakoa osatu dezan, hau da, hizkuntza ohiturak aldatzeko aliatu izango dituzten hamaika lagunengana zerrenda osa dezan".

Gogoan izan, maiatzeko ariketa kolektiboan norbanako gisa parte hartzeko izen-ematea zabalik dela; belarriprest nahiz ahobizi gisa euskara ahotan gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin hartzea bultzatuko duen ekimenarekin bat egiteko aukera duzue jada euskaraldia.eus atarian sartuta. "Hartu zure rolaren argazkia, partekatu zure sareetan eta zabaldu Euskaraldia lau haizetara!", egin dute gonbita Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den herri batzordetik.

Orbeldik Dantza Eguneko eskaintza aurkeztu du

Ikuskizun, kalejira eta erromeriaz girotuta datorkigu apirilaren 5erako iragarri duten 13. Dantza Eguna.

Egun osorako jaialdia iragarri du Orbeldi dantza taldeak; herritarren parte hartze zuzena sustatuko duena. Izan ere, ikusi eta entzun ahalko diren zenbait emanaldi iragarri dituzte; egunari ekiteko, lehenbizi, Dantzari Txiki ekimenaren seigarren edizioiko kalejira eta jendaurreko erakustaldia eskainiko dute herriko dantzariak, hitzordura gonbidaturiko Zarauzko Jalgi eta Lezoko Murixka taldeekin batera.



Apirilaren 5ean, Dantza Eguna.

'Amets' izeneko emanaldiaren aurkezpena

Helduek hartuko dute haien lekukoa gauean, urtero moduan, herri sorkuntzaren erreferentzia hitzorduarekin. Izan ere, azken hilabeteotan ondutako emanaldia aurkeztuko du Orbeldik; "Amets" izena du, 2025eko edizioan plazaratuko dutenak.

Ikuskizun horren aurretik eta haren ostean, indarra ahi-tu arte dantzan aritzeko aukera aparta izango da, erromeria giro beteko edizioa prestatu baitu Orbeldik aurtengorako.

Hala, arratsaldean, Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak ari-tuko dira dantza giroa pizten Artzabalén.

Gauean, Laket taldearekin segi ahalko da erromerian, Mikel Laboa plazan.

Usurbilgo 13. Dantza Eguna

Apirilak 5, larunbata

• Goizean, 6. Dantzari Txiki: Jalgi eta Murixka talde gonbidatuekin:

- 11:30 Haurren kalejira udal-etxetik.
- 13:00 Haurren emanaldia frontoian.
- 14:30 Herri bazkaria Askatasuna plazan.
- 17:00 Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak Artzabalén.
- 22:00 "Amets" ikuskizuna frontoian.
- Ondoren, Laket erromeria Mikel Laboa plazan.

Antolatzailea: Orbeldi dantza taldea.



Iragan ostiralean xafla batzuk ipini zituzten, babes gisa.

Goi-tentsioko dorrea babestu dute

Martxoaren 8an bi gaztetxo elektrokutatu ziren Osinalde industrialdeko Erribera kaleko goi-tentsioko dorre batera igo ostean. Astebetetz egoe-ra larrian izan eta gero haie-

tako bat zendu egin zen duela bi asteburu. Ondoko argazkiko dorrea da aipaturikoa. Iragan ostiralean, hura babesteko zenbait xafla ipini zituzten.

Zuhaitz-igelen putzua, arriskuan

Herrikide batek berri eman digunez, berriki izandako ez-behar baten eraginez hautsia dago, Igaratik Kalezarrera bidean dagoen hegoaldeko zuhaitz-igelak bizitoki duen ur-putzua inguratzen duen hesia. Antza, herrikide honen esanetan, ezbeharrak izan zen; ibilgailu batek hesigune hau zeharkatu zuen. "Espero gidariak kalte pertsonalik jasan ez izana", adierazi digu beste ezer baino lehen, herrikide honek. Bide batez, "ea gunea babestearren, babesa lehenbailehen berreskuratzen den", hautsia dagoen hesia konpon-tzea galdegin du.

"Galtzeko arriskuan"

Haritzalde Naturzaleen Elkartearen arabera, "Kantauri



Ur-putzua inguratzen duen hesia hautsi egin da ezbehar baten ondorioz.

isurialdean eta Piriniotan ezagutzen den espezie honen populazio bakarra Donostia, Orio eta Usurbilen artean dagoen Mendizorrotz mendian aurki daiteke". Ondorioz, "Arriskupeko Itsas eta Basa Landaredi eta Fauna Espezieen Euskal Katalogoa" ren arabera EAE-n galtzeko arriskuan agertzen den anfibio bakarra dugu".

 943 361 182
EROSKI / city
kale Nagusia 10, USURBIL

**JUANTXO**
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

**Bazkariak**
EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!
www.noaua.eus



'Pantailen erabilerak kezkatzen al zaitu?' izeneko tertulia antolatu dute.

Hitz Ahok bi ekitaldi iragarri ditu

Gaurkotasun handiko gai baten inguruko nahiz sorkuntzara bideraturiko ekimen bana antolatu du Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak udaberri hasiera honetarako.

Apirilak 2, asteazkena

17:00 Kafe-tertulia Potxoenean. Solasgaia: "Pantailen erabilerak kezkatzen al zaitu?".

Oharra: haur txikiekin joan ahalko da.

Apirilak 22-25

10:30-12:00 "Xut, udaberriari keinu" Zorione Mendezen eskutik, saio artistiko esperimentalak Udarregi ikastolan, 7-12 urte artekoek zuzenduak.

Izena emateko: <https://labur.eus/rkvzcdz>



"Martxoaren 12an hitzordua jarri genuen ikasgelan".

"Kolakao" tertulia Aginagako Eskolan

Urtero, Udarregi ikastolara, DBH1 egitera joan diren ikasleekin batzen gara Agiñako eskolan, iritziak, aholkuak eta bizipenak konpartitzeko. LH6ko ikasleak informatzeko eta lasaiago egoteko balio izaten du.

Martxoaren 12an hitzordua jarri genuen ikasgelan. 7-8 urte batera egon ondoren, gogorra

egin zitzaigun agur esatea. Urtebete geroago elkartzeko eskolan, oroitzapen asko ekarri zizkigun, eta beraiekin bizipenak kontatzen gustura egon ginen. Askarixto batekin borobildu genuen arratsaldea.

Aginagako eskola txikiko LH6ko ikasleak

Zuhaitz landaketa Andatzen

Panpa belarra landare inbaditzailea erauzteko "LIPE COOP Cortaderia" Europa mailako ekimenera atxikiak daude Gipuzkoako Foru Aldundia eta Usurbilgo Udala. Bierakundeon lankidetzaren testuinguruan, Udarregi ikastolako LH4 mailako ikasleek 40 haritz landatu dituzte Andatza mendian,

Arantzameka inguruan, Udaketik aditzera eman dutenez. "Gune hori panpa belarra landare inbaditzaileak (Cortaderia selloana) hartua zuen, eta duela zenbait hilabete hori erauzteko lanak egin ostean, bertako basoa berreskuratzeko helburuz landatu dituzte, orain, haritzak".



Udarregiko LH4ko ikasleek 40 haritz landatu dituzte Andatzen.

Ziortzaren udako kanpaldian izena emateko garaia

Aurre izen-ematea egiteko epea martxoaren 31n amaituko da. Aurrerago egin behar den izen-emate ofiziala, "baina soilik galdetegia bete dutenekegin ahal izango dute". Izen-ematea @ziortzage Instagrameko biografian dagoen estekaren bidez egin daiteke, edota argazkiko QRa eskaneatuz. Txandak, hauek:

- DBH3-4: uztailak 8-17.
- DBH2: uztailak 17-24.
- DBH1: uztailak 24-31.



Aurre matrikula egiteko formularioa QR kodearen bidez eskuratu daiteke.

DYaren aldeko elkartasun txokoa zabalik da

Udarregi ikastolako LH6. Mailako ikasleek azkenaldian landutako elkartasun proiektuaren baitan, DYA laguntzea erabaki dute. Haren aldeko elkartasun azoka zabaldu zuten aste hasieran eta hantxe izango dira martxoaren 28ra arte; 16:15-16:45 artean, Agerialdeko patioan. Eurria bada, bertan dagoen frontoian. Etxean egindako jakiak nahiz DYaren produktuak eskuratu ahalko dira.



Martxoaren 28ra arte egongo da azoka martxan, Agerialdeko patioan.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

San Esteban kalean 3 logelako etxe bat alokatzen dugu. Maiatzean hartu ahal izango da. Animaliak ez dira onartzen. 630675785

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil 618773004

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsultarako egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahal, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. T685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldari bila gabilta. Orduetgia astelehenetik larunbatera goizeko 8:00etatik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. 661972670.

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase partikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Astebukaeratan lanerako prest dagoen mutila: basoko lanak, lursailen garbiketara, baserriko lanak. 682 774 857 (Carlos) / 670 987 921.

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. 747446091 Michele

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketara lanak egiteko lan bila nabil. 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

BESTELAKOAK

55 kilo inguruko aharia salgai Mahaspildegina. 943 364 461 (12:00-15:00 artean deitu).

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak.

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiaro Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

HILDAKOAK



Lontxo Ormaetxea Iraola
Martxoaren 22an hil zen, 85 urterekin.

Eskubaloia Oiardon

Martxoak 29, larunbata:

- 09:30 Infantil neskek: Usurbil K.E.-Urola
- 11:00 Kadete neskek: -Cortes Usurbil KE -Neurri Elgoibar
- 13:00 Jubenil neskek: -Usurbil KE-Munttarpe
- 15:30 Senior neskek: -Urbil-Usurbil KE -Ordizia Biok2.com

Martxoak 30, igandea:

- 12:00 Kadete mutilak: Usurbil KE A-Urkunde Elgoibar

Futbola Haranen

Martxoak 29, larunbata:

- 09:00 Infantil neskek: -Usurbil FT -Sporting Herrera/Intxaurdi FE
- 10:30 Preferente mutilak: Usurbil FT-Hondarribi FE
- 15:30 Jubenilak: Usurbil FT-Behobia CD B
- 17:45 Erregionalak: Usurbil FT B-Euskalduna

Martxoak 30, igandea

- 16:00 Kadete neskek: Usurbil FT -Landetxa KTCD

Haranetik kanpo:

Martxoak 29, larunbata

- 09:00 Infantil neskek, Berion: Santo Tomas Lizeoa-Usurbil FT B
- 12:30 Preferente neskek, Legazpin: Ilintxa SD-Usurbil FT

Martxoak 30, igandea

- 11:15 Infantil mutilak, Zubipen: Hernani CD B-Usurbil FT C
- 12:45 Kadete mutilak, Zubipen: Hernani CD B-Usurbil FT
- 17:00 Infantil txiki, La Sallen: Igeltegi de Donosti CF-Usurbil FT
- 17:35 Ohorezko jubenilak, Berion: Santo Tomas Lizeoa-Usurbil FT

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 28

USURBIL Komiki tailerra, 'Axi'-rekin

Ainara Azpiazu 'Axi'-k gidatuko du komiki tailerra.
17:30 Sutejin.

USURBIL 'Janela' argazki erakusketa

18:30 Sutejin.

USURBIL Sareren mobilizazioa

20:00 Mikel Laboa plazan.

LARUNBATA 29

USURBIL 'Usurbil herri zaintzailea' ekitaldia

11:00-13:30 Sutejin.

USURBIL Gazte Eguna

Egun osoko jardunaldia.

IGANDEA 30

USURBIL Ordu aldaketa

Goizaldeko 2:00etan, 3:00ak izango dira.

USURBIL Kantu-jira

12:00-14:00 Mikel Laboa plazan.

USURBIL Soinurbil: musika sorkuntzaz berrikeran

Olatz Salvador, Jokin Pinatxo eta Gari Udaberekin.



Ameba taldea arituko da gaueko kontzertuan.

Gazte Eguna hemen da

Aztarrika gazte asanbladak antolaturiko ospakizun eta aldarrikapen eguna izango da larunbateko Gazte Egunarekin. Ginkana, hamaiketakoa, gazte-afaria edota kontzertu gaua iragarri dituzte. Bisitariak ere izango dituzte tartean; Iruñeatik azken urteotan inguruotako sagardotegiren batera etorri izan diren Peña Alegriako kideak bueltan izango dira. Haiekin egingo dute arratsalde parteko poteo girotua.

Martxoak 29, larunbata

- 11:30 Ginkana Askatasuna plazan.
- Ondoren, hamaiketakoa Askatasuna plazan.
- 17:30 Poteo girotua Peña Alegriarekin Aitzagatik hasita.
- 20:30 Gazte-afaria Askatasuna plazan.
- 00:00 Kontzertu gaua: Ameba, Zilibito Records, Dj La Fulana.
- Antolatzailea: Aztarrika Gazte Asanblada.

Komiki tailerra liburutegian

Ostiral honetan egingo dute, 17:30-19:00 artean, Suteji udal liburutegian. Ainara Azpiazu "Axi"-k bideratuko du saioa. Bertan, "komiki bat egiteko oinarriko ezagutzak eta baliabideak eskainiko dira". Saioa LH4tik gorako haur eta gaztetxoei (DBH barne) zuzendua egongo da. Izena aurrez eman beharko da liburutegian bertan.

Hurrengo bisita gidatuak

Martxoak 28, ostirala

- 10:00-11:15 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Apirilak 5, larunbata

- 11:00-12:15 Museo irekia bisita gidatua.

Informazio gehiago eta izen-ematea:

650usurbilbizi.eus

Ostiral honetan Sareren mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde Sarek deitutako elkarretaratzea hilaren 28an egingo da, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Kantu-jira igandean

Igande eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea.

txirriStra
TABERNA
· PLATER KONBINATUAK
· BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

· EGUNEKO MENUA
· KARTA
· RAZIOAK
· HANBURGESAK
· BOKATAK

ORIANTE BHI

BATXILERGOKO matrikulazio epea
MARTXOAK 31 - APIRILAK 11



- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Hezkidetza
- Agenda 2030
- Orientazio akademikoa
- Ekintza osagarriak
- Mugikorrik gabeko ikastetxea
- Hezkuntzako eramangarriak doan

ATE IREKIAK

APIRILAK 2, 17:30-18:30

LARREKOETXE eraikinean!

ZIENTZIAK ETA
TEKNOLOGIA

GIZA ETA
GIZARTE
ZIENTZIAK



Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa) ☎
Buenos Aires aldapa 1, Lasarte-Oria
943 899 492 📞
info@oriarte.eus ☠
<https://oriarte.hezkuntza.net/> 🌐

LABORAL  -k eta AMA  -k aurkezten dute:

BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

LABORAL Kutxan eta AMA Tolosan
bat gatzoz gure lurra eta nortasuna
babesteko konpromisoarekin.

Eta, espiritu horrek bultzatuta,
oso zozketa berezia egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia gastronomiko** eta 2 laguntzako **gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu** batean*.



HARTU PARTE HEMEN:

laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa



*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiak hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderei erantzuten badiete. Zozketa. AMA Tolosa jatetxeko esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 laguntzat bakoitza, eta gosaria barne duen 2 laguntzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako, AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak laboralkutxa.eus webgunean.


LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat



*Elkar mugituz
egingo dugu*



Hizkuntza ohiturak euskarara gehiago ekar ditzazun lagunduko dizun ariketa praktikoa da.

Maiatzaren 15etik 25era, 11 egunez.

Zer proposatzen du ariketak?

**LEHEN HITZA
EUSKARAZ!**

Edonon eta ezezagun guztiekin.

**EUTSI
EUSKARARI!**

Erdaraz erantzunda ere, ulertzen badu, jarraitu euskaraz egiten.

**ETA ZUK EGIN ALA EZ, ESKATU ZURI
EUSKARAZ EGIN DIEZAZUTEN!**

NIREKIN BETI EUSKARAZ!

Nola egingo dugu?

Belarriprest ala ahobizi txapak jantzita.

Horrela, aurrean dugunari mezu argia helarazten dio: nirekin egizu euskaraz, lasai!



www.euskaraldia.eus